

PIARRES LAFITTE-RI OMENALDIA

HOMENAJE A PIERRE LAFITTE

HOMMAGE À PIERRE LAFITTE



EUSKALTZAINDIA
Real Academia de la Lengua Vasca
Académie de la Langue Basque
BILBO
1983

GIPUZKOAKO FORU DIPUTAZIOAREN
BABESEAN ARGITARATUA

PUBLICADO BAJO EL PATROCINIO DE LA
DIPUTACION FORAL DE GUIPUZCOA



© EUSKALZAINDIA

Depósito Legal: NA 1099-1981

ISBN 84-85479-21-1

Editorial Aranzadi, S. A. - Iruñea - Pamplona



Piarres Lafitte jaunaren irudia,
A. Irigoyenek egina.

EUSKARAREN ERABILPENA NAPARROAKO ERREINUAN XVI-XVIII G. MENDEETAN

Manex GOYHENETCHE

1512-an Albret-eko dukeren armada Naparroako lurraldeetan sartzen da eta ondoko urteetan Don Fernando Aragoi eta Gaztela-ko erregek ofizialki bereganatzen du Naparroako Erreinua, hitzemanaz halere, «observar e goardar les fueros privilegios usos et costumbres del dicho regno»¹, bere burua daukalarik «depositario de la Corona y Reyno de Navarra»². Erraitea Naparroa harmez eta indarrez hartu zuela Fernando-k, anitz daiteke. Badakigu feodal familia handi batzu aspaldidanik Gaztelaren alde zirela; Naparroa Iparraldean, Agramontes batzu salbu, idazkietan deitzen diren «señor» gehienak Gaztelaren alde oso errazki jarri ziren³. Baina menpetasun horrek ez zuen luzaz iraun. «Tierras de Ultra puertos» deitzen zuten orduan gaurko Baxenabarre. Iparralderako bideak bi lepoek kontrolatzen zituzten orduan: Orria-koa (edo Orreaga) eta Somport-ekoa. Muga onik ez zutela Iparraldeko lur horiek eta hobeago zela beraz menpean zeukan Naparroaren muga berria Orria-Somport mendi lerroetan emaita, pentsatu zuten Fernando eta gero Karlos-en kontseilariak. Horrela egina izanen da guti gora behera 1530 inguru

1. A. G. N.: sección de Cortes, Recopilación de Actos de Cortes 1503-1531, Fº 80.

2. ADPA E 554.

3. Gertakizun horren lekuko dugu 1515 -eko idazki bat. Uharte-n biltzen dira Naparroako Estadoak eta basailutzarako edo zerbitzari zina eskaintzen diote Don Fernando-ri. Han zeuden Donibane Garaziko gazteluzaina, Lekuze, Armendaritze, Uharte, Lasako «señor»-ak, Mehaine-ko biskondea, Irisarri-ko «comandador» bat, Lakarra-ko «señor» Bernat, Behorlegi-ko Baroia, Donibane Garazi-ko «Caperan Major» deitzen zen Erretor Nagusia. Biltzarerat etorri ziren ere orduan «Universidat» deitzen ziren eskualdeetako ordezkariak: Iriberry, Ortzaize, Arboti, Ostibarre, Izura, Larzabale, Donapaleu, Garruze, Bastida, baita ere «Jassu»-ko Martin eta «Pedro Dechepare». ADPA E 555.

Gertakizun bertsuaren seguramena emaiten digu Moret-ek erraiten duelarik:

«Y el Conde de Lerín buscaba medios, para atraer al de Lusa a la obediencia del Rey Don Fernando, y le ofrecía de su parte, así a él, como a los de su séquito pagarles ciertas assignaciones, que tenían del Rey Don Juan. También trataba al Rey Católico de reducir a su servicio a Beltran de Armendariz, y otros caballeros de Tierra de Vascos por medio de grandes ofertas, que les hizo. Y lo vino a conseguir. Porque despues vinieron a Pamplona a hacer pleyto Hommage al Rey en manos del Marques de Comares» (Annales de Reyno de Navarra, 1766-eko ed., 279 hor.)

hortan. Orduan dira bilakatu «Erreinu» delako «Tierras de Ultra puertos» lurraldeak, hor errefugiatzen baitira Naparroako Errege eta Erregina zuzenak: Albret-eko Jehan eta Catalina⁴. Geroztik, Baxenabarre-ko lurretan mugatu da Naparroako Erreina 1789-rarte, hiru mendez bere Soberania zainduz, Foru, Legeditza eta Estadoen bidez.

Baina jabetasun edo soberania osoa omen daukan Erreinu horrek ez du nehoiz euskara hartu idazkera ofizialtzat. Estadoetako akta guziak bearnesez idatziak dira: urtero egiten dituzten biltzarretako txostenak bearnesez dira; 1608-1611-an egina eta 1645-ean argitaratua den Foru berria ere bearnesez idatzia da. Estadoetako plazara ez da beraz jali euskara.

Egia da, apurka, apurka, bearnesaren gibelzapena nabaritzen dela, baina frantsesaren probetxugarri eta ez euskararen. Hizkuntz aldaketa 1620-etik goiti gertatzen da. Alabainan urte hortan du finkatzen Luis XIII garrenak «Edit d'Union» delako erabakia Naparroako Erreina Frantziako Koroarekin bateratzeko. Ordutik goiti, eta jadanik lehenago ere, Napartar jende asko Frantziako Koroaren alde agertzen da: beroenak ziren «ofizier» deitzen ziren administraritzako kargudunak^{5/6}. Eta frantses eragin politikoarekin hizkuntz eragina ere sartu. Beraz 1620-1630 urteetatik goiti eskusribu guziak frantsesez idatziak dira. Euskara sartuko da bakarrik *hamazortzi* garren mendean, 1756-eko «emaitza» -ren zati bat euskaraz idatzia da⁷. Besterik ez. Hor daukagu Naparroako Estadoek hiru mendeetan zehar eginen duten euskarazko idatzi bakarra. Baliosa beraz, ez bakarrik hizkuntzalarientzat, baina euskararen egoeraz arduratzen diren guzientzat. Hor ageri baita, Naparroako Erreinan hizkuntz zapalketa ez dela kanpotik sartua bakarrik, eta nehun ez da aurkitzen euskararen aurka zuzenki frantses Erregeek finkatu duten erabakirik. Euskara, Napartar «ofizier» horiek berek dute baztertu. Ez gogo

4. Ez erran «Merindad de Ultra puertos»: hitz hori berantago sartuko da. Molde berean, erdarazko «Basse-Navarre» (gure Baxenabarre) 16 g. mendearen bukaerarte ez da azaltzen idazkietan.

5. «Ofizier», hitza horrela emaiten dut, besterik ez izanez. Bistan da erdarazko «officier» hitzetik heldu dela. Erregimen Zaharreko garaian, «office» hitza emaiten zen administraritzako edozein karguri. Erregerena zen kargua eta baliatzeko erosi behar zen. «Office» sistema horren bidez dituzte beren giderrak zabalduko eta azkartuko beren menpeko esku mutil hoieri esker. «Ofizier» karguan zartzen ziren ahal zuten guziak, merkantiak aparte, diruaren irabazbide ugariena baitzen.

6. Edit d'Union Elkartzearen alde agertu dira Naparroan: Baigorri-ko Bertrand d'Echoux famatua (eragin handia zeukan Naparroako Estado etan eta Kantzelerian), Donibane Garazi-ko Logras familia, Amikuze-ko Pierre Vidart (edo Bidart), Lostal familia (Busunaritze-ko Apathea etxaldearen jabeak). Denak «Office» edo kargu haundi batzuen jabe ziren, bereziki Donapaleuko Kantzalaritzan: buruzagi-orde, prokuradore, kontseilari edo abokatu. Talde horrekin harreman zehatzetan zebilen Oihenart anaiak. Arnaud Oihenart ezkondu zen Jeanne Erdoi-ekin (Jean de Lostal en alarguna). Jacques Oihenart aldiz (Kontseilari zena), ezkondu zen Pierre Vidart-en alaba gehienarekin. Jende ohoragarriak elgarren artean kurutzatzen ziren. Ageri da ere nondik nora zoztzen garai hartako euskaltzaleen bideak.

7. «Emaitza» da lehengo idazkietan aipatzen den «donation» edo Erregerentzat biltzen ziren zergak, eta gero banatzen, hots busceta.

zarrez. Ikusi behar da garai hartako ingurumena. Erdi aroko idazkera ofiziala asko tokitan latina izan da, edo latinetikako hizkuntza bat. Hamaseigarren mendetik goiti tokiko hizkuntzan idazten hasi delarik jendea, errazago zen Naparroan latine-tik bearnesezera pasatzea ez eta euskarara. Napartar idazleak ez dira konturatu berek zutela baztertzen euskara.

Baztertze hortaz konturatu zen Bernat Etxepare, baita ere Dominique Bidegaray frantziskotarra, 4.000 libera galdatzen dituelarik '(eta 300 libera baizik ez ukaiten) euskal hiztegi baten argitaratzeko; eta hauxe dio euskarak jasaiten duen egoeraz:

«Elle (euskara) est demeurée comme incognue et presque inutile... Que ceus meme a qui elle est naturelle en ignorent la beauté et la noble origine, luy ont refusé leur estime»⁸ Ageri da norat behatzen zuen eta nori mintzo zen.

Naparroako gizon kargudun herritarrek (eta ez kanpotiarrek bakarrik) erdara baizik ez badute erabili administraritzako idazkietan, herria halere eguneroko bizitzan euskaraz ari zela nabaritzen da. Foruak eskatzen die notarioei eta uxerei euskara jakin eta erabil dezaten:

— «Augun que no sie de desens lo Royaume, ou resident, et que no sapy parlar, et entendre lo lengoadge deus contrahents, no sera probedit de Officy de Notary, ny sera recebut en l'exercicy dequet» (9. Kapitulua, 1-n artikulua).

— «Augun Ucher no sera recebut si no sap legir, escriber, et lo lengoadge vulgar deu Pays, et senhs estar examinat per lo Conselh de la Chancelleria, et trouvat capable per aquet» (9. Kapitulua, 1-n artikulua).

1966-eko Araudietan gauza bera galdegina zaie notarioei:

— «Les notaires doivent estre basques et regnicoles ou du moins verses en la langue»⁹.

Euskaradun izaita galdegina zaie ere Kantzeleriako idazkariei: «Les greffiers de la chancellerie doivent estre des personnes capables et versées en la langue basque»¹⁰.

1691-an Araudiak errebertitzen direlarik, eskaera bertsuak agertzen dira:

— «Les greffiers doivent tenir un ou deux notaires enquesteurs basques quy sachent la langue»¹¹.

8. ADPA C 1533 Fº 97 - 98.

9. ADPA C 1529 Fº 22.

«Regnicolles» erran nahi du «herritar».

10. ADPA C 1529 Fº 26.

11. ADPA C 1532 Fº 15.

— «*Les commis et prépozé au recouvrement des amandes discernées par le parlement ne doivent pas se servir d'huissiers ou sergens estrangers*»¹².

— «*Les informations enquestes et toutes autres procedures, seront faites par des officiers du pays entendant la langue basque*»¹³.

Bikario Jeneralak ere euskaraduna izan behar du:

— «*Ledit sieur Evesque mettra audit royaume dans le detroit de son diocese un vicaire general entendeu en la langue basque*»¹⁴.

Eskakizun hoiek zerbaiten seinale dira: notario, uxer, idazkari—edo «grefier»—denek, beren lanaren gatik harreman asko bazeukaten herriarekin, eta euskara euskara jakin eta erabili behar zuten, herritarrek beste hizkuntzarik ez zakitelako.

1789-ko Iraultza etortzen delarik, Biltzar Nagusi-ko (Assemblée Nationale) legeak euskararat itzultzea erabakitzen da:

— «*Vous avez reçu, M, une lettre de M. le Controleur General en datte du 10 de ce mois qui vous autorise à faire imprimer les decrets de l'Assemblée Nationale en langue basque suivant l'idée que vous en aviez donnée pour mettre les peuples de la Navarre en état d'entendre ces decrets*» (copie de la lettre de M. Acher à M. de Bouchepon le 25 octobre 1789)¹⁵.

Baina Ministro eta Gobernari batzu ez dira ados. Eta hor geldituko da Iraultza denboran hasia zen euskararen alderako bultzada.

— «*M. le Comte de St Priest a qui il a été envoyé copie de cette lettre a mandé depuis qu'il étoit inutile de faire une pareille traduction parceque si on la faisoit pour la Navarre il faudrait aussi la faire pour d'autres Provinces qui sont dans le même cas*»¹⁵.

— «*M. l'Intendant d'Auch, Monsieur m'a en effec écrit pour me proposer de faire traduire les decrets de l'assemblée Nationale en langue basque et béarnoise et j'en ai conféré avec M. le Garde des Sceaux. Mais nous avons pensé l'un et l'autre qu'il n'y avoit pas lieu d'adopter ce parti, parce qu'autrement il faudroit pour différentes Provinces du Royaume autant de traductions qu'elles ont d'idiomes.*

J'ai répondu en conséquence à M. l'Intendant d'Auch, le 3 de ce mois».

12. ADPA C 1532 F^o 37.

13. ADPA C 1532 F^o 55.

Forua erreberritzeko garaian (16g. bukaeran, 17g. hastapenean), eztabaida gogorrak izan ziren ere Kantzeleriako ofizierei buruz, euskara jakin eta erabili behar zuten ala ez bereziki jujueek. Ikus B. Nat. 16674, F^o 241, 246, ADPA C 1553, F^o 63.

A. Nat. K 1234 n.º 32.

14. ADPA C 1532 F) 37.

15. A. Nat. H 1/1153, n.º 205.

1756-eko idatzia

Handa saunde auzien bassanavarreco estatuz
Equitem duten donacioniaren Bassarria

1º Erreguerij hoguzigita hamabij quartier:

2º Erreguerij bere tropen dauo bymila libera:

3º Bestalde by mila eta lau Ehun libera Consyguo —
arristaren Cortulis, Coim arriet emana jean dixyteen
mila Caspi Ehun eta hamecortij guerren ourthian —
majhatzaren lehenian garagnouien Sug'etaren yaiguan:

4º Quehiago by mila eta lau Ehun libera Capitaliacionaren
emendiatan estabilliaq jean Coim lau fossen dauo —
libra khal, eta hori Consylian abes Douaren —
hemecortij guerrenian, mila Caspi Ehun eta berreguzij
eta Caspi guerren ourthian emana jean en arrietaren
eta agorrijaren by guerrenian banilig omdoro ourthian
estaduz ^{Britanien} ~~Britanien~~ Deliberacioniaren ^{Conforme} Cortulis, Coim soma
alchalia jaunen baita Capitaliacionarequin daugui
burulan, eta nola pagamendu hori equin behar baiguidien
hamar ourthio orondudan ^{eta deliberacionarequin} arrietaren ^{Conforme} Cortuz
ourthio Equindouquegu ^{imposition hori} auzbingo ourthiarequin

5º Quehiago hamabij mila libera ^{daugui} ~~ourthio~~
Capitaliacionaredao, Coim Capitaliacione noblesiaq eta heren
estadiaq pagatu beharbytu vsaincharen Conforme: —

6º Bestalde hamahirour Ehun eta hamabij libera

hamar ^{Castro} ~~sol~~ eta hamar diner, hamargurrin ~~gaur~~ ^{libera khal} imposaliaq jean Ciru. bij Soier daco, Estelariq Soma-
 bontan Sartu, nobleziaq pagatu behardun portioia
 eta hori estaluz Estagnasen ^{hoqui} eta hiru
 gurrenian, mila Caspi chun eta borroquey eta Caspi
 queren ourthian hartu. Cuten Deliberationiarru
 Conformé Sein Somaq ^{de albatas} pagatia jean beharbitu
 Simulaco taillaraquin, eta Soma hori estuz behar
 pagatu ourthion ^{deyfiq}, Cerru impositionia ^{expitoren}
 establitia jean hamar ourthindaco ^{decey}, eta hamar
 ourthiaq ourthion ^{betaten} ~~familia~~ ^{deyfiq}:

7. Destalde ^{dey} mila Caspi chun eta hoqui, eta
 hemacortey libera hamar ^{sol} eta ^{Suj} diner officio
 municipalen Saladiouarundaco, eta hori Consillian
 acarouaren hamargurrenian, mila Caspi chun eta
^{borroquey} hamargurren ^{ourthian} emana jean ^{ein} arretaren
 eta estaluz martchoiaren ^{dey} gurreniam hartuq
 ourdaco ourthian hartu ^{cuten} Deliberationiaren
 Executionetan:

8. Destalde hamaca chun libera, marchandien salpina
^{Barria} ~~procurator~~ ^{Dulener} mahatsanoien, jarcalen eta Douchein
~~Barria~~ ^{Dixitacalen} officioru euenendaco, eta ourthingo dan
 hariu daco, eta hori Consillian ^{urriaren} hoqui eta
 Cortey gurreniam, mila Caspi chun eta borroquey eta

*Bideratze gurren oinartian, eta Estatu^{zhas}en, apiratzen
 hamar^{hunen} gurrenien (mila⁵ Caspi eta Orroquij eta
 hamar gurren oinartian) hartu⁵en deliberationiarren
 Executionetan:*

Iturria: A.D.P.A. C 1536

IKURAK

- A.G.N.: Iruña-n: Archivo General de Navarra.
- A.D.P.A./Pau-en: Archives Départementales des Pyrénées-Atlantiques.
- A. Nat.: Parise-n: Archives Nationales.
- B. Nat.: Parise-n: Bibliothèque Nationale.

HIZTEGIA

ESTATIEQ: Estadoak; urtero biltzen ziren, nobleziak, hirugarren ordenak eta eleizak osatzen zuten. Erdi Aroan Korteak deitzen ziren.

QUARTIER: Zergen banaketa.

GARAGNOUEN SUGETAREN GAIGNAN: «Haras» deitzen ziren garañote-gien ordaintzeak.

CAPITACIONIA: zerga mota bat; herritar bakoitzak ordaindu behar duena.

ARRESTA: Erregek, Estadoek edo gobernadoreak hartu erabakiak.

USAINCHAREN CONFORME: ohidura zaharren arabera edo ohi den bezala.

TAILLA: Beste zerga mota bat, familia bakoitzak ordaintzen duena.

SALARIOUARENDACO: Bearnese hizkuntzatik heldu da. «Salaris» zen adminis-traritzako kargudunen (ofizier) soldata. Hortik erdaraz egin da «salaire».

CONSEILLIAN: Edo Erregeren Kontseilu Batzordea edo Pau-eko Kantzelaritza (deitzen dena ere «Parlement de Navarre»).

**AURKIBIDEA
INDEX
INDICE**

<i>Eskaintza – Dedicatoria – Dedicace</i>	9
<i>Piarres Lafitte-n Biografi pondu batzu</i>	15
<i>Piarres Lafitte-n lan zerrenda bat</i>	
<i>Frantsesez</i>	17
<i>Euskaraz</i>	19
<i>Bibliografi-artikulu zenbait Gure Herria-n eta Herria-n</i>	23
Emile Larre, <i>Piarres Lafitte kazetalaria</i>	25
Iratzeder, <i>Entzun!</i>	31

I – HIZKUNTZA ETA LITERATURA – LANGUE ET LITERATURE – LENGUA Y LITERATURA 35

Jacques Allières, <i>De la formalisation du système verbal basque</i>	37
Patxi Altuna, <i>La problemática de algunas conjunciones vascas</i>	93
Nikolas Alzola Gerediaga, <i>Esaerak-eta, Izurtzaldeko euskaran (101-140)</i>	101
José Luis Ansorena, <i>El euskera en la polifonía religiosa y profana</i>	107
José Antonio Arana Martija, <i>El fondo Bonaparte de «Azkue Biblioteka»</i>	127
Aurélie Arcocha, <i>Xabier Lete, un poète basque sous le franquisme, une conception de la finalité du langage poétique</i>	155
M. ^a José Azurmendi Ayerbe, <i>Algunos aspectos del euskara utilizado hoy</i>	175
Jose Migel Barandiaran, <i>Hitz batzuek eta beren esan-nahiak, gehienak Ataunen erabilteen ditugunak eta hiztegietan, batez bere Azkuenean, ageri ez diranak</i>	189
Pierre Bidart, <i>Ecriture et politique chez Augustin Chabo. Eléments pour une littérature mineure</i>	205
Bernardo Estornés Lasa, <i>El dialecto roncalés en la muga de Aragón y Bearn</i>	215
Ana M. ^a Etxaide, <i>Worter und Sachen metodoan oinarriturik dagoen inkesta mota bat</i>	231
Salomé Gabunia, <i>A propos d'un toponyme basque</i>	245
Manex Goyhenetche, <i>Euskararen erabilpena Nafarroako Erreinuari XVI-XVIII. mendeetan</i>	251

Jean Haritschelhar, <i>Une poésie basque du milieu du XVI^{ème} siècle (1554) célébrant la naissance de Henri III de Navarre (le futur Henri IV)</i>	259
Alfonso Irigoyen, <i>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuak Gasteiztik Euskaltzaindiari bialdu deutsan «Euskararen erabilera Bizkaiko irakaskuntzan» dalakoari obarrak</i>	275
Endrike Knörr, <i>Una traducción de Uriarte al vascuence alarés: La Bula ineffabilis de 1864</i>	279
Federico Krutwig, <i>Piarres Lafitteren omenez</i>	317
F. B. Larzabal, <i>J. B. Elissamburu eta Oxalde, bi «gorri»</i>	323
Manuel Lekuona, <i>Gerundioa euskeraz</i>	339
P. Gabriel Lerchundi, <i>Le traitement rythmique des mots dans le chant en navarro-labourdin non-accentué d'aujourd'hui</i>	347
Gerardo López de Guereñu, <i>Toponimia de Contrasta</i>	415
Keteban Metpjin, <i>Sobre la etimología de la palabra vasca «Gurasoak», «Padres» ОБ ЭТИМОЛОГИИ БАСК GURASOAK «РОДИТЕЛИ»</i>	425
Keteban Metpjin, <i>Análisis de componentes del sistema vizcaíno de términos de parentesco КОМПОНЕНТНЫЙ АНАЛИЗ' БИСКАЙСКОЙ СИСТЕМЫ ТЕРМИНОВ РОДСТВА</i>	431
Koldo Mitxelena, <i>Iruñea</i>	445
Jose Antonio Mujika, <i>Ontsa-ren egituraz eta estiloaz zerbait</i>	453
Hans G. Mukarovsky, <i>Les noms basques des quatre points cardinaux</i>	465
Francisco Ondarra, <i>Hemezortzigarren eta Hemeretzigarren mendeetako euskal gutun ez-ezagunak</i>	475
Francisco J. Oroz, <i>Wilhelm von Humboldt und der basko-iberismus</i>	491
J. B. Orpustan, <i>Sur les noms et toponymes basques dans un compte bas-navarrais du XIII.^o siècle (1264-1265)</i>	503
Beñat Oyharçabal, <i>Euskarazko erlatiboez oharño bat</i>	517
Txomin Peillen, <i>Oreina eta gizoreina literaturgintzan eta edergintzan</i>	529
Georges Rebuschi, <i>Autour du parfait et du passif basques</i>	545
Karmele Rotaetxe, <i>Pragmática y Lingüística aplicada (De la enseñanza de la gramática a la enseñanza del funcionamiento de la lengua)</i>	559
Jose M. ^a Satrustegi, <i>Lasarteko bertso paper zahar bat (1716)</i>	571
Suzuko Tamura, <i>Syntactic patterns of position nouns in japanese, ainu, canadian eskimo and basque</i>	583
Robert L. Trask, <i>Euskal izen sintagmaren egituraz</i>	599
Patxi Uribarren, <i>Euskal dialektologiaren atarian</i>	613
Xarles Videgain, <i>Alokutiboa Lopez-engan (1782)</i>	625
Georges Viers, <i>La toponymie des cartes de l'Institut Geographique National: souvenirs, principes et realites</i>	647
Fr. Luis Villasante, <i>«Idek eta zabal gogo-bihotzak»</i>	655

Piarres Xarritton, <i>Hazparne-ko Martin Larralde (1782-1821), Bernard Larralde (1771-1853), J. Baptiste Larralde (1804-1870) hiru pertsulari Bordaxuri-tarrak</i>	667
Pedro de Yrizar, <i>De(b)e-du(t)e, dai, debie aditz-jokoak gipuzkeraz. Bizkaieraren eragintza</i>	683
Zatarain'darr Anbrozi, <i>Euskerazko bertsokerak</i>	689
Yu. Vl. Zytsar, <i>Los numerales del vascuence (problemas etimológicos)</i>	709

II – BESTE GAI BATZUK – OTROS TEMAS – SUJETS AUTRES (D'AUTRES SUJETS)

Lino Akesolo, <i>Batzarrak, Bizkaiko foruak, Gernikako Batzarrak eta euskerea</i>	731
J. L. Davant, <i>Udan irakurriak</i>	733
Mikel Duvert, <i>Remarques sur la structure de l'Art plastique basque</i>	741
Idoia Estornés Zubizarreta, <i>Dos cartas de Unamuno a Angel Apraiz (Unamuno y la Sociedad de Estudios Vascos)</i>	751
Bitoriano Gandiaga, <i>Paskual (Haurrentzako bertsioan)</i>	769
Justo Gárate, <i>Dos cartas inéditas de Guillermo von Humboldt dirigidas a Madrid</i>	773
Juan Gorostiaga, <i>Dólmenes y sarcófagos misteriosos</i>	775
Antonio M. ^a Labayen, <i>Dr. P. Lafitte eta zuburtzea</i>	783
Jose Luis Lizundia, <i>Euskal departamenduari begira: kantonamendu ugaritze eta eskualdekatzearen elkar egokitzeaz</i>	797
Aita Onaindia, <i>P. Lafitte euskal olerkari</i>	801
Michel Oronoz, <i>Une eglise basque, aujourd'hui? demain?</i>	811
Juan San Martin, <i>Arraten sortzen da bizitza</i>	833
J. Ignacio Tellechea Idígoras, <i>Correspondencia entre D. Isaac López-Mendizábal y D. Serapio Múgica (1906-1934)</i>	849
Martín Ugalde, <i>José Antonio de Aguirre y el problema generacional de Euskadi</i>	867
IZEN AURKIBIDEA – INDICE ONOMASTICO – INDEX ONOMASTIQUE	897